

Hainbat datu Langile ikastolaren inguruan:

- **1970 urtean sortu zen**
- **Egun 855 ikasle ditu**
- **594 familia**
- **Eraikinak, hiru: Meabe, Laubidieta eta Santa Barbara**
- **Batzordeetan lanean, 51 guraso**
- **Langileak guztira 127 (irakasleak 85 eta ez irakasleak 42)**

Langile ikastolaren historiaren lehen unetik, ordurarteko eskola mota (“eskola tradizionala”) gainditzeko borondate garbia zegoen. Eskola euskalduna eta eskola-hizkuntza euskara izango zuen eskola nahi zen; eskola hierarkizatu eta autoritarioarekin hautsi; inguruarekin harreman estuan egongo zena; familia eta eskolaren arteko harremanaren garrantzia kontuan izango zuena; gestio demokratiko eta parte hartzailea bilatuko zuena; Freineten lana aztertu ondoren, Metodo Naturala praktikan jarri nahia; irakasleen formazioak garrantzi handia izango zuena. Azken finean, “Eskola Berri” baten filosofia eztabaidatu zen eta ikuspegi hori praktikara eramateko ahalegina egin zen.


Euskal Herriko beste edozein herrietan bezalaxe ikastola berrien sorrera ez zen lan samurra izan. Gurearen kasuan ere, beste ikastola bateko kide izanik baina sakoneko desadostasunak tarteko, bidea ez zen erraza izan.

Urte haietan oso berritzailea izan zitekeen Langile ikastolaren Proiektua, baina urte batzuk beranduago, Erreformaren legea bezala (LOGSE) ezagututakoa onartu zenean guztiz egunean zegoela ikusi zen.

Hastapeneko urte haietan emandako urratsak sendoak izan ziren. Hori dela eta Langile ikastolaren Hezkuntza Proiektua bizi bizirik dago. Orduko helburuak gaur hortxe jarraitzen dute. Antolaketa mailan geroztik egin diren moldaketak ikastolaren handitzeak sortu dituen beharrei erantzuteko izan dira, baina oinarritzko eskema eta ardatza berdinarekin.

Ondorengo orrietan eta oso era sintetizatuan aipatu Hezkuntza Proiektu hori zein den eta atzean zein antolaketa nagusi duen azaltzen saiatu gara.





Batzar Nagusia *:

- Ikastolako Organu Gorena da.
- HLH eta DBH hartzen du bere baitan.
- Urtean, gutxienez, behin elkartzen da.
- Gestioa ahalik eta biziena izan dadin honako antolako orokor hau egin du

Gelaburuen Batzordea **::

- Eskola Kontseiluaren parekoa da.
- Eskolako estamendu guztiak daude ordezkatuta
- Ikasturte hasieran aukeratzen dira ordezkariak gurasoak gela bileratik eta irakasleak klaustrotik. Ggutxienez bi ikasturte iraun behar dute.
- Ikastolako talde dinamizatzaile nagusia da
- Hamabostero elkartzen da
- Gai zehatzak lantzeko azpitaldeak ditu: Batzordeak (jangela, azpiegitura,...)

B multzoa LANGILE EZ IRAKASLEAK

- Hezkuntza sailarenak eta subkontratenak (garbitasuna eta jangela) barne

C multzoa GELA-MAILEN GURASO ORDEZKARIAK

- Gelaburua deitura du, gela ordezkatzen duelako (kasu batzuetan maila ordezkari dezake)
- Ikasturte hasieran aukeratzen da, prest egon daitezkeen artean
- Gutxienez bi urte pasa behar ditu ordezkari modura
- Gelako gurasoen arteko bileran sor daitezkeen gaiak Gelaburuen batzordera eraman, eta alderantziz, egin behar du.
- Gelaburuen batzordea, lan talde bat denez, bertan sor daitezken egin beharrak ere burutu behar ditu: ikastola ordezkatu, une batzuetan erabakiren bat hartu; oro har ikastolako dinamizazio orokorreko eragile izan.

E multzoa UDAL ORDEZKARIA

- Udaleko zinegotzia da
- Legealdi osorako dago izendatua
- Harreman iraunkorra


D multzoa IKASLEAK

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA (10-11 urte) ETA
BIGARREN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA (12-13) ETA 2. ZIKLOA (14-15 urte)

- Gela bakoitzetik ordekarari bat dago
- Zikloko guztiak elkartzen dira. Baina behar izanez gero mailaka ere.
- Irakasle batekin batera elkartzen dira.
- Aztertzen dituzten gaiak: jardunaldein antolaketa (mus, pin-pon txapelketa) bidaia, arautegia, festak, elkarbizitzan sortutakoak, tutoretzetan landutako gairen bat, errebeindikazioak,...
- Astero biltzen dira
- LH eta DBKko 1. zikloan ordezkariak hiruhilabete baterako dira. DBHko 2. zikloan, aldiz, ikasturte osorako.
- Ordezkarien eginbeharra da gelako bileran aztertutako gaiak ordezkarien bilerara eramatea. Ez dagokio berari beste gaitan inizatibarik hartzea.
- DBHko 2. zikloko ordezkariak dira, gaiak horrela eskatzen badu, Gelaburuen batzordeen bilerara joan behar dutenak informatzera eta dagokion eskari edo proposamen aurkeztera.
- Gelaburuetan ez dute ordezkari-tza finkorik

BATZORDEAK

- Gelaburuen batzordearen lantaldeak dira.
- Gai bateratuen arabera daude antolatuta
- Guraso eta langilez daude osatuak
- Gaiak aztertu eta proposamenak egitea dagokie. Proposamenak Gelaburuen batzordean aurkeztu behar dituzte hauek dagokien pausoa eman dezaten
- Azpiegitura, Jangela, Kirola, Herriko plangintza,...



KOORDINADORA*:

- Kideak: HLH eta DBHko zuzendariak, hiru zeontroetako ordezkari bana, HLHko idaz-karia, HLHko ikasketa burua.
- Gelaburuen batzordeko irakasle ordezkariak ere badira
- Funtzioa: ikastolako irakasle kide bezala dagokien koordina-zio orokorra
- Ez dagokio erabakirik hartzea, bai ordea klaustroari
- Bilerak astero

PEDAGOGIKA:**

- Kideak: Ikasketa buruak, ziklo eta tailer edo mintegietako ordezkariak eta DBHko koordinatzailea
- Funtzioa: Pedagogia mailako koordinazioa.
- Ez dagokio erabakirik hartzea, bai ordea klaustroari.
- Bilerak, astero

CURRICULUM*:**

- Kideak: HLHko ikas keta burua, eta HH eta LHko zikloetako ordezkariak
- Funtzioa: Curriculuma aztertu, eguneratu eta idazteko talde dinamizatzailea
- Bilerak, astero
- Pedagogia Batzordearen azpitalde bat da

PREMIA BEREZIEN TALDEA**:**

- Kideak: HLHko aholkularia, DBHko orientatzailea, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak
- Funtzioa: heziketa premia bereziak dituzten ikasleen jarraipena, aholkularitza,...
- Bilerak, astero

PARTE HARTZEKO BESTE ESTAMENDU BATZUK

GURASO MAILAN, GELA-BILERA

- Gurasoen parte hartzeko lehen mailako gunea da
- Gelako guraso eta tutoreak hartzen dute parte
- Ikastolako gela guztietan egiten da.
- Ikasturtean sei bat bilera egiten dira
- Gaiak:
 - ikastolaren kudeaketarekin lotutakoak; guraso gelaburuen (ordezkarien) dinamizaziopean
 - pedagogiarekin lotutakoak; irakasle tutorearen dinamizaziopean

IRAKASLEAK

- Klaustroa:
 - Ikastolaren kudeaketarekin lotutakoak; Koordinadora batzordeko kideen dinamizaziopean. Eta zentroka.
 - Pedagogiarekin lotutakoak; Pedagogia batzordeko kideen dinamizaziopean.
 - Etapa mailan, behar denean
 - Ziklo/tailer/mintegi mailan, astero
 - Mailaka astero

Balorazio orokor modura esan daiteke Langile ikastolaren sorrerako hezurdura balekoa zela eta izaten jarraitzen duela, hausnarketa askoren ondoren, berdinean jarraitzen baitugu.

Aipatu antolaketak gure ikastolaren Hezkuntza Proiektua gauzatzeko balio digu, paperean eta teorian adierazten duguna praktikan gauzatzea ahalbidetzen digulako.

Guraso bezala parte hartzeak bi norabide ditu. Batetik, ekarpenak egin ditzakezu eta, bestetik, pertsonalki jasotzeko asko duzu esperientzi honek ikasketa balioa duelako: lan taldea zer den; haurraren heziketa prozesua ezagutu; iritzi pertsonaletik haratago ideiak Hezkuntza Proiektu baten ikuspegian kokatzeko aukera duzu; “ni” pentsamendutik “gu” pentsamendura pasatzeko aukera. Guraso baten esperientzian antolaketa honetan parte hartzeak prozesu batean murgilarazten dizu, hasieran kritikoa zara, baina denborarekin ez hainbeste.

Aldi berean, parte hartze era honek inplikazio handia eta “fuertea” suposatzen du. Zenbait sasoiotan oso une zailak ere egoten dira (publikazio garaiko eztabaida prozesua, Herriko plangintza aztertzeke sasoia,...).

Eskolaren gestioan parte zuzena hartzeak eskola komunitateko kide izatea sentiarazten du. Gertu sentitzen zara beste gurasoengandik, langileengandik eta baita ikasleengandik ere. Horrek gainera une batzuetan erabakiak hartzeko beharra dagoenean asko laguntzen dizu.